

EUSKADIKO GJHEN AZTERKETA ETA BERRIKUSPENA: EUSKADI 2030 EBALUAZIO METODOLOGIARANTZ

Posted on 03/02/2026 by Naider

Lehendakaritzak bultzatzen du **Euskadin Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) jarraipen-sistemaren azterketa eta berrikuspena** helburu duen proiektua, lurraldearen errealitatera egokitutako **Euskadi 2030 ebaluazio-metodologia** sendo, koherente eta erabilgarri baterantz aurrera egiteko asmoz.

Agenda 2030a garapen jasangarrirako esparru unibertsala da, baina haren aplikazio eraginkorrak helburuak eta adierazleak lurralde bakoitzaren testuinguru espezifikora egokitzea eskatzen du. Euskadin, erronka hori jarraipen-sistema sendo bat finkatzean datza, jasangarritasun ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan izandako aurrerapen errealak behar bezala interpretatzeko aukera emango duena, datuen irakurketa destestuinguratuak saihestuz.

Proiektuak gai hori ikuspegi bikoitzetik lantzen du: alde batetik, eskuragarri dauden adierazleetan islatzen den egungo errendimenduaren azterketa eginez; bestetik, adierazle-sistemaren beraren berrikuspen tekniko eta estrategikoa eginez, haren egokitasuna, kalitate estatistikoa eta Euskadiko Agendaren lehentasunak islatzeko gaitasuna ebaluatuz.

Lan hau garatzeko, Lehendakaritzak Naidarren laguntza teknikoa du, adierazleen analisisian, politika publikoen ebaluazioan eta plangintza estrategikoan duen esperientzia eskainiz.

